

E MAILA**ARANTZAZUKO ANDRE MARIAREN AUZUNEA**

Egilea eta data: Luis Elizalde; 1919-1922.

Deskribapena

Familia bakarreko etxebizitza atxikien multzoa, 8, 10, 11 eta 14 etxeko lau errenkadatan banatutakoa. Erdisotoa, bastardea eta goi oin bat dituzte. Silarrixkako zokaloaren gainean entokatutako fatxada. Bi isurkiko estalkia, zurezko harburuak dituzten teilatu hegala zuzenez amaitua. Etxeetarako sarrera bina, babesgarri irten bat dago eta, goi oinean, baoteko bat balkoia da. Konposizioari dagokionez, binaka biltzen dira (sarrerako babesgarriak elkartuta), errenkada bakoitzaren muturretan izan ezik. 1919ko jatorrizko proiektuak 45, 46 eta 47 zenbakietan kokatzen den etxebizitza kolektiboko bloke lineala definitzen du –erdi sotoa eta hiru goi oin dituena–, eta horiek ere multzo honen parte dira.

“Arantzazuko Andre Maria” multzoaren babes erregimena

Multzoa osatzen duten elementu katalogatuetako bakoitzerako ezarritako babes erregimena osatu egingo da ondoren zerrendatzen diren zehaztapenekin. Multzoko funtsezko balioak zaintzeko multzoaren osotasunerako ezarritako zehaztapenak dira. Zehazki:

- * Bizitegi eraikinen gehieneko altuera eta oin kopurua gaur egun eraikinek dutena izango da, eta ez da jasodurarik onartuko.
- * Multzoko eraikin guztiek, tratamendu bateratua izango dute espazio publikotik ikus daitezkeen jardunei dagokienez, estalkietan eragina duten jardunak barne: koloreak, materialak, arotzeria, txapitulen antolamendua, eta abar. Ondorio horietarako gaur egungo koloreak, materialak eta abar hartuko dira erreferentetzat, betiere arotzeriari eta abar dagokionez Plan Berezi honetan baimentzen diren berregokitzapenen kalterik gabe.
- * Ondoren adieraziko diren bi jardun unitateak berezi dira. Lehena 1 eta 43 zenbakien artean, biak barne, dauden eraikinek osatzen dute. Bigarrena 45, 46 eta 47 zenbakiek osatzen dute.
- * Fatxadetan, lorategiko eta alboetako eranskinak ezabatzea.
- * Adreiluz edo morteroz estalitako zokaloetan silarrixka lehengoratzzea.

Hauek dira Arantzazuko Andre Mariaren osotasunean barnean hartzen diren banako eraikin katalogatuak:

- | | |
|--------------------------------------|---------|
| * Arantzazuko Andre Maria 1 – 8 | C maila |
| * Arantzazuko Andre Maria 9 - 18 | C maila |
| * Arantzazuko Andre Maria 19 - 28 | C maila |
| * Arantzazuko Andre Maria 30 - 43 | C maila |
| * Arantzazuko Andre Maria 45, 46, 47 | C maila |